

## Mahai autogarbitzailea-Sarrera

Gure ideia mahai autogarbitzaile bat da. Behin mahaiko platerak eta tresnak bildu ondoren mahaian geratzen diren ogi papurrak eta zikinkeriak garbitzeko erabiliko da. Mahaiaren alde batean mahaiaren zabalera guztia hartuko duen garbitzaile bat izanen da, motor txiki bat izanen du eta honen bidez garbitzaile hau mahaiaren beste aldera joanen da mahaiko zikinkeria bilduz. Motor txiki honek mugimendu hori bakarrik egitea ahalbidetuko du alde batera eta bestera.

Ideia honekin erosotasuna eta azkartasuna bilatu nahi dugu. Gainera honekin bildutako zikinkeria zuzenean zakarrontzira botako du, horretarako mahaiaren beste aldean zakarrontzi bat egonen da. Zakarrontzia eta garbigailua mahaiaren zabalera egokitu beharko da mahai guztia garbitzeko. Honekin merkatuan ez dagoen produktu bat bilatu nahi dugu gure bezeroei onura bat sortuz, kasu honetan erosotasuna gehienbat.

